

IGORRE



Bizkaia - Euskal herrian, Bilbotik 22 kilometrotara dagoen herria.

Arratia bailarako herri garrantzitsuenetako bat da Igorre, 4000 biztanle (1999ko datua), Gorbeia eta Urkiolako Parke Naturalak inguratuta, baserri inguruan nahiz eta industria izan sektorerik garrantzitsuenetako bat.

Igorre eta Dimako Intxaurbizkar inguruan, Elgezua izeneko auzo txikia dago. XI. gizaldian, Santa Lutziko basilika eraiki zuten bertan. Auzoa San Kristobal izenagaz ezaguna da, izan ere aipatutako santua bertan egiten da bertan.

Auzoko jai batzordeak Intxaurbizkar Kultur Elkarte legez ezagunak, gazte mailako lasterketa bat antolatzen du, urteko jaietan: "San Kristobalera Igoera" izenekoa.

Asfalto arazoak eta trafikako agintarien ezetzak, Marcos Gerediaga S.C Amorebietako presidenteari berbakaz batera, jai batzordeak 1977. urtean lehenengo Ziklo-Kross San Kristobal, Igorre antolatuko du.

1980. urtean Arratiako hainbat txirrindularizalek, eta Igorreko Ziklo - Krossaren "erruz", Arratiako Ziklista Elkarte sortu zuten. Elkarte hau eta Intxaurbizkar Kultur Elkarteak lagunduta, lasterketaren antolaketaz arduratu ziren.

San Kristobalgo zirkuitoa "Ziklo-Krossaren Katedrala" Igorreko herri barrutik hiru kilometrotara dago. Ikusleak zirkuitoaren edozein puntutatik, lasterketa osoa ikusteko aukera dauka. Bertan egin dira hamazazpi edizio. 1993. urtean lasterketa Munduko Kopan sartzeak, Olabarriko

zirkuitora aldatu beharra ekarri eban. Olabarriko hau herri barruan dago eta antolaketarako azpiegitura hobea dauka, nahiz eta ikuslearentzat hain ikusgarria ez izan. San Kristobalگو auzo txikiak, bizia emon eutson eta hazten ikusi eban. Igorrek izena emon, eta bere etorkizunaz arduratzen da Olabarrin.